

## **GORRITIZKO HILARRI ZAHARRA**

### *Forutar batek kontatuta*

Kurutzeko Ama Birjinako hilarria Foruako Urberuaga auzoan da, udalerrri bereko Baldatika auzorako bidean. Bada herrian elezahar bat hilarri honen inguruan:

<<...antza danez, Gordiz dorretxeko neskatila bat ardien bila ebilela, Ama Birjinaren irudia agertu jakon atx baten gainean, eta esautson:

- Nora zoaz neskatila?
- Ardiak ekarten noa.
- Lotu bertan nigaz apur baten, zure ardiak berez etorriko dire eta, zu zagozan lekura.

Ama Birjinaren gaztetxueri ileak orrazten eutsozan bitartien, ardiak bere ingurura batu ziren danak>>.

Batzuek diotenez, Ama Birjinak leku hartan bertan bere irudia gurtuko zen baseliza bat eraikitzeko eskatu zion. Antza denez, Gordiz dorretxeko biztanleek baseliza Ama Birjina agertu zen lekuan egin barik, euren etxe ondoan egitea ebatzi zuten.

Hala ere, laster etsi zuten, ezen beraiek egunez egiten zuten beharlekua Ama Birjinak, gauez, agerkundearen lekura eramaten baitzuen. Azkenean, euren ideia damutu zitzairen eta baseliza Ama Birjina agertu zen lekuan eraiki zuten. Baseliza gaur egun desagertuta dago, baina Kurutzeko Ama Birjinako harriak markatzen du agerkundea gertatu omen zen lekua.

Gordizko dorretxea = Gorritizko dorretxea



Kurutzeko Ama Birjinako hilarria.